

Zumaiako liburutegia etorkizuneko Oxforden izango dute bizilagunek

Foronda Kultur Etxetik herri gunera ekarriko du udaletxeak. Zerbitzua herriko elkarteekin eginiko bileretan adostu dute aldaketa eta hasierako proiektua berregin dute.

Ainara Lozano. Zumaia.

Zumaiako liburutegia etorkizuneko Alondegian, herritarrek Oxford deituriko eraikinean izango dute bizilagunek. Gaur egun Foronda kultur etxean eskaintzen den zerbitzua Erribera kalera jaitsiko dute Alondegia berritzeko lanak amaitu eta gero.

Udaletxeko arduradunek Oxfordeko proiektua berregin eta kultur elkarteekin adostea erabaki zutenetik bilera ugari izan dira eta hi-tzordu horien ondorioetako bat izan da liburutegia herri gunera jaitea. Iñaki Agirrezabalaga alkateak eta Hirigintzako zinegotzia den Andoni Etxanizek azaldu zuten, proiektua aldatzen ari dira eta uztailan prest izatea espero dute. Ondoren, batzordetik pasa, oporrak baino lehen Foru Aldundira bidali eta abuztuan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea espero dute. Irailean obrak adjudikatu eta lanekin hasteko asmoa du Udalak. Elkarteekin eginiko bileretan lortutako beste ondorioetako bat izan da Alondegia ez dela leku aproposa herriko taldeek entseguak egiteko.

Prozesu berdina

Etorkizuneko Alondegiak liburutegiaz gain, ikasteko areto batzuk eta igogailua ere izango ditu. "Gaur egun liburutegiak ez ditu obrak begiratzeko eta ikasteko lekuak banatuta. Gainera, kokapenaz hitz egiten badugu, irisgarritasun aldetik Foronda ez da oso egokia. Aldaketak kultura herrira ekar-tzeko balioko digu", adierazi zuen Hirigintzako zinegotziak.

Herriko taldeek ordutegi malgua behar dutenez, Foronda kultur etxean bilerak egiteko gelak izango dituzte. Hala ere, Udaleko ordezkariak herriko eraikin publikoen erabilera zehazteko bilerak egiteko asmoa dute kultur elkarteekin. "Bai Foronda, bai Torreberri, anbulatorioa, komentua... eraikin publiko ugari ditugu esku artean eta guztien erabilera zehaztu beharko da. Oxfordekin egin den prozesu berdina jarraitu nahi dugu. Kulturako mahai baten bitartez denbora egoki batean erabaki eraginkorrak hartu dira", azaldu zuen Etxanizek.

"Jendea inplikaturatu sentitu da Oxfordi buruz hartu diren erabakiekin eta horrela jarraitzeko asmoa dugu", gaineratu zuen alkateak. "Lehen proiektua ez zen herriko talde guztien gustukoa eta duela gutxi proiektu berriaren aurrerapen bat ikusteko aukera izan dugu eta jendea pozik agertu da eskatutakoa txertatu delako", nabarmendu zuen Etxanizek.

